

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 25/2019 Foru Dekretua, maiatzaren 3koa. Onestea foru kargu publikoen jardueren erregistroaren eta ondasun eta interesen erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua

Araugintzako testu bakar batean sartzearen foru kargu publikoen araubide juridikoari eta estatutu pertsonalari buruzko kontu guztiak, eta, halaber, osorik eta modu integratzaile batez jasotzearen kargu horien guztien bateraezintasun, muga eta betebeharrak guztiak, 10/2018 Foru Araua onetsi zen, uztailaren 11koa, foru kargu publiko horretan jardutea arautzen duena.

Era berean, Foru Arau hori onetsi zenetik 7/2008 Foru Arauaren bigarren xedapenean jasotakoa bete zen, hau da, foru arau proiektu bat sortzea, arautzailea izango dena, diputatuen eta goi mailako karguen bateraezintasunen eta interes gatazken ingurukoa, bateraezintasunen araubideari buruzko autonomia araubidean zenbait aldaketa onetsi ondoren. Hala, aldaketa hori ekainaren 26ko 1/2014 Legea, kargu publikoen jokaera kodea eta interes gatazkak arautzen dituena, onetsi ondoren egin zen.

10/2018 Foru Arauaren xedapen indargabetzaile bakarrak, besteak beste Arabako Foru Aldundiaren jardueren eta ondasunen eta interesen erregistroa arautzen duen otsailaren 18ko 7/2008 Foru Araua eta 7/2008 Foru Araua lehen aldiz aldatzen duen uztailaren 12ko 6/2010 Foru Araua indargabetzen ditu.

Gainera, hirugarren xedapen iragankorrean aurreikusita dago indarrean mantenduko dela araubidez garatzen den arte Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 10eko 60/2008 Foru Dekretua, Arabako Foru administrazioaren diputatu nagusiaren, foru diputatuen eta goi-mailako karguen jardueren aitortpena eta ondasun eta interesen aitortpena aurkeztu eta dagozkien ereduak onartzeko prozesua onartzen duena, eta Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 2ko 51/2010 Foru Dekretua, Ondasunen eta interesen aitortpenen fitxategia sortzen duena.

Horregatik guztiagatik, egokitzat jotzen da araubidez garatzea 10/2018 Foru Arauan jasotako jardueren aitortpeni eta ondasunen eta interesen aitortpeni eta erregistroen aitortpeni buruzko aurreikuspenak. Bereziki beharrezkoa da jardueren aitortpen ereduak garatzea, baita ondasun eta interesak aitortzeko ereduak ere, eta horiek arauz onartu beharko dituzten aldundiak, Foru Arau horren 31. eta 32. artikuluekin bat eginez.

Hala, aipatutako xedapenak betetz, kargu publiko guztiek aurkeztu beharreko aitortpenen ereduak onartu dira ezarritako epekin bat eginez.

Foru Dekretu hau hala ere ez da bakarrik eredu horiek onartzeko, eta beraz, foru erregistro bien antolamendua eta funtzionamendua arautzen du baita ere.

Era berean, Foru Dekretu honek otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauan, Arabako lurralde historikoko sektore publikoaren gardentasunari, herritarren parte-hartzeari eta gobernamentu onari buruzkoan, ezarritako publikitate aktiboari buruzko betebeharrak jasotzen ditu, ALHAOn argitaratuko diren ondasun eta interesen aitortpeni dagokionez eta sei hilean behin Arabako Batzar Nagusietara bidaliko den informazioari dagokionez. Hemen jasotzen da baita ere ondasun higiezinaren egiaztapen zehatzari eta titularren pribatutasuna eta segurtasuna bermatzeari buruzko datuak ez jartzeari buruzko aurreikuspena.

Foru Dekretuaren egiturari dagokionez, 4 kapitulutan banatuta dago, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapena dituelarik. I. kapitulua xedapen orokorrei buruzkoa da, eta bertan definitzen da Foru Dekretuaren xedea eta betebeharrari lotutako pertsonak zeintzuk diren, baita datu pertsonalak babesteari buruzko aurreikuspen espezifikoa ere. II. kapituluan erregistroari eta foru kargu publikoen jardueren aitortpeni buruzko aurreikuspen espezifikoak jasotzen dira, eta III. kapitulua foru kargu publikoen erregistroari eta ondasun eta interesen aitortpeni buruzkoa da. IV. kapituluan erregistro bietarako xedapen komunak arautzen dira. Bukatzeko, xedapen indargabetzailea eta azken xedapena daude.

Dekretu hau izapidetzeko bete egin dira araupetze onaren printzipioak, urriaren 1eko 39/2015 Legean, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenean, aurreikusten diren eta maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren, I. eranskineko 3. artikuluan jasotzen diren horiek. Hala, aurrekarietan nahikoa justifikatu da foru kargu publikoen jardueren eta ondasun eta interesen erregistroa arautzeko beharra dagoela, eta gainera, araubide jarduketa neurrikoa da, helburua lortzeko gutxieneko ezinbestekoa jorratzen baitu, hau da, erregistroen antolamendua eta funtzionamendua arautzea eta jardueren eta ondasunen eta interesen aitortpenen ereduak onartzea.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzeko delak eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu; izan ere, edukia antolamenduari baino ez dagokionez, posible da jendaurrean jartzeko izapidea ez gauzatzea. Edonola ere, onartu bezain laster ALHAOn argitaratzeko aginduko da. Hori guztia ahaztu gabe jardueren erregistroa eta ondasun eta interesen erregistroa Arabako Foru Aldundiaren sektore publikoaren gardentasunean aurrera egiteko prozesuaren barne daudela.

Efizientzia printzipioari gagozkiola, proposatutako arautze horrek, duen izaera dela-eta, ez dakarkie herritarrei ez administrazio karga osagarririk ez premiagabekorik, ez baliabide publikoen kontsumo handiagorik.

Horregatik guztiagatik, Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearekiko adostasunez, diputatu nagusiaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

Foru Dekretu honen xedea foru kargu publikoen jardueren erregistroaren eta ondasun eta interesen erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzea da, baita uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren, foru kargu publikoen jarduera arautzen duenaren, 31. eta 32. artikuluetan adierazitako jardueren aitortpenerako eta ondasunen eta interesen aitortpenerako ereduak onartzea ere.

2. artikulua. Derrigortasuna dutenak

1. Foru kargu publikoek derrigorrez egin beharko dute jardueren aitortpena eta ondasun eta interesen aitortpena.

2. Ondorio horietarako, hauek dira foru kargu publikoak:

- a) Diputatu Nagusia eta Diputatuen Kontseiluko gainerako kide guztiak.
- b) Arabako Foru Aldundiko eta beraren erakunde autonomoetako eta foru sozietate publikoetako goi kargudunak.
- c) Zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoetako eta foru sektore publikoko fundazioetako eta partzuergoetako zuzendaritza postuetan ari diren pertsonak.

3. artikulua. Datu pertsonalak babestea

1. Foru kargu publikoen jardueren erregistroan eta ondasunen eta interesen erregistroan jasotako datuak modu automatizatuan guztiz edo partzialki tratatzean eta datuok automatizatu gabe tratatzean datu pertsonalak babesteko araubidea bete beharko da. Hain zuzen ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Araubidean (EB), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/CE zuzentaraua indargabetzen duena, (datuak babesteko araubide orokorra), datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat eginez.

2. Tratamendu hori Arabako Foru Aldundiaren tratamendu jardueren erregistroan jaso beharko da.

II. KAPITULUA

Foru kargu publikoen jardueren erregistroa eta aitorpena

4. artikulua. Erregistroaren xedea eta izaera

Foru kargu publikoen jardueren erregistroa publikoa da eta Arabako Foru Aldundiaren Idazkaritza Nagusiaren Zerbitzuari lotuta dago, eta bere xedea uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren, foru kargu publikoen jarduera arautzen duenaren, 31. artikuluan adierazitako jardueren aitorpenak gordetzea da.

5. artikulua. Aitortu beharreko datuak

Foru kargu publikoen jardueren erregistroan jasoko dira honako datuak:

- a) Kargu publiko aitortzailearen datu pertsonalak.
 - Kargu publiko aitortzailearen izen-abizenak.
 - Sexua.
 - NAN zenbakia.
 - Helbidea.
 - Telefono zenbakia.
 - Posta elektronikoko helbidea.
- b) Karguari buruzko datuak.
 - Karguaren izena.
 - Zerbitzua hasi zuen eguna.
- c) Egindako aitorpen motak eta noiz egin ziren.
- d) Kargua izan aurretiko 2 urteetan egindako jarduerak.
- e) Kargu publiko gisa zerbitzua ematen hastean egiten ari zen jarduera.
- f) Kargu publikoa egikaritzean inguruabarrak aldatu izana.
- g) Kargua uztearen ondorengo 2 urteetan egingo diren jarduera pribatuak.
- h) Kargua uztearen ondorengo 2 urteetan izango diren inguruabar aldaketak.

6. artikulua. Jardueren aitorpena

1. Jarduera publiko eta pribatu hauei buruzko aitorpenak egin beharko dira:

- a) Foru sektore publikoan zerbitzua ematen hasitako unean edo kargua egikaritzean bere kabuz egindako jarduerak edo ordezkapen edo ahalduntze bidez egindakoak.
- b) Foru kargu publikoari dagozkion zerbitzu harremanak hasi aurreko bi urteetan egindako jarduerak.
- c) Foru kargu publikoa utzi ondoko bi urteetan berak zuzenean edo ordezkari nahiz ahaldunen bitartez egingo dituen jarduera pribatuak.

2. Horretarako, Foru Dekretu honen I. eranskinean jasotako jardueren aitorten ereduak beteko da, eta bertan, eguneratutako informazioa jasoko da, aitorten eguna kontuan hartuz.

7. artikulua. Aurkezteko epea

1. Jardueren aitortpena hilabeteko epean aurkeztuko da foru kargu publikoen jardueren erregistroan, eta hilabetea honela kalkulatu da:

- a) Zerbitzua hasi zuen egunetik aurrera.
- b) Kargua utzi zuen egunetik aurrera.
- c) Hala badagokio, aurretik adierazitako datuak aldatu zirenetik aurrera.

2. Kargu publiko gisa egikaritutako hezkuntza edo ikerketa jardueren ekitaldiari lotutako aitortpena edo kargu publiko gisa zerbitzua hasi aurretiko jardueren aitortpena hilabeteko epean egingo da zerbitzu hori hasten denetik aurrera zenbatzen hasita.

8. artikulua. Sarbidea eta ziurtagiriak

1. Jardueren erregistroaren araubidea uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arau publikoak, foru kargu publikoen jardura arautzen duenak, eta Foru Dekretu honek arautzen dute, albo batera utzi gabe datu pertsonalak babesteko araubidean, urriaren 1eko 39/2015 Legean, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenean, eta otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauan, Arabako lurralde historikoko sektore publikoko gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onarenean, zehaztutakoak.

2. Erregistro horretako gordailuan jasotako aitortpenak ezagutu nahi dituztenek identifikatu ondoren edukiaren ziurtagiria eskatu ahal izango dute, argi adieraziz informazio hau:

- Eraginpeko kargu publikoa.
- Eskatutako datuak.
- Eskariaren arrazoia.

3. Eskari generikoak edo informazioa eskatutako karguaren titularra argi identifikatzen ez duten eskariak ez dira onartuko, aurretiaz txostena emango duen aldundiko Idazkaritza Nagusiko titularrak.

4. Erregistroan dauden datuen ziurtagiriak erregistroan gordetako jatorrizko aitortpenen kopia egiaztatutako izan daitezke, administrazio prozedura erkidearen oinarriko araubidean aurreikusitakoarekin bat eginez.

Ziurtagiri horiek aldundiko Idazkaritza Nagusiko titularrak emango ditu.

9. artikulua. Bateragarritasun baimena

Jardueren aitortpenarekin batera, hala badagokio, uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren, foru kargu publikoen jardura arautzen duenaren, 28. artikuluekin bat eginez, bateragarritasun edo bateraezintasun aitortpena eskatzeko beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko da, beharrezkoa dena Foru Arau beraren 24. artikuluen c), d) eta e) ataletan eta 25., 26. eta 27. artikuluetan aurreikusitako inguruabarretan. Era berean, Foru Dekretu honen II. eranskina beteta aurkeztuko da.

III. KAPITULUA

Foru kargu publikoen jardueren eta ondasun eta interesen erregistroa eta aitortpena

10. artikulua. Erregistroaren xedea eta izaera

Foru kargu publikoen ondasun eta interesen erregistroa publikoa da eta Arabako Foru Aldundiaren Idazkaritza Nagusiaren Zerbitzuari lotuta dago, eta bere xedea uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren, foru kargu publikoen jardura arautzen duenaren, 32. artikuluan adierazitako ondasunen eta interesen aitortpenak gordetzea da.

11. artikulua. Aitortu beharreko datuak

1. Foru kargu publikoen ondasunen eta interesen erregistroan jasoko dira honako datuak:

a) Kargu publikoaren datu pertsonalak.

– Kargu publikoaren izen-abizenak.

– Sexua.

– NAN zenbakia.

– Helbidea.

– Telefono zenbakia.

– Posta elektronikoko helbidea.

b) Aitorpen boluntarioak izanez gero familiako kide aitortzailearen datu pertsonalak.

– Izen-abizenak.

– Sexua.

– NAN zenbakia.

– Helbidea.

– Telefono zenbakia.

– Posta elektronikoko helbidea.

– Kargua duenarekin duen harremana.

c) Karguari buruzko datuak.

– Karguaren izena.

– Zerbitzua hasi zuen eguna.

d) Foru kargu publikoek egindako aitorpen motak eta horien egunak.

e) Familiako kideek modu boluntarioan aurkeztutako aitorpen motak eta horiek aurkeztutako egunak.

f) Derrigortuta dauden pertsonen aurkeztutako zerga aitorpenak (aurkezpen eguna eta ekitaldi fiskala).

g) Kargu publikoaren ezkontideek edo izatezko bikoteek modu boluntarioan aurkeztutako zerga aitorpenak (aurkezteko eguna eta ekitaldi fiskala).

h) Ondare mugapenei buruzko informazioa.

i) Hiri eta landa ondasun higiezinak.

j) Ondasun higigarriak.

k) Bestelako ondasun higigarriak.

l) Aitortzaileen sozietate partaidetzak eta ezkontideak, afektibitate harremanean bizikidetzan jarduten duen pertsonak, menpeko oinordekoek edo tutoretzapekoek dituztenak.

m) Ondare betebeharrak, zorrak, maileguak, kredituak eta antzekoak.

n) Aitortzaileak, ezkontideak edo afektibitate harremanean bizikidetzan jarduten duenak, menpeko oinordekoek edo aitortzaileen tutoretzapekoek dituzten mota guztietako sozietateak.

o) Egindako aitorpenei buruzko aldaketak.

12. artikulua. Ondasunak eta interesak aitortzea

1. Aitortu egin beharko dira ondare ondasun, eskubide eta betebeharrak guztiak, eta gutxienez honakoak barne hartuko dira aitortpenaren egunean:

a) Beren ondare ondasunak, eskubideak eta betebeharrak.

b) Balore edo finantza aktibo negoziagarriak.

c) Sozietateetako partaidetzak, eta partaidetutako sozietateen izena eta xede soziala; eta beste edozein sozietateren izena eta xede soziala, baldin eta aitortzaileak, aitortzailearen ezkontideak, ezkontzaren araubide ekonomikoa edozein dela ere, edo harekin antzeko afektibotasun harremanean bizi den pertsonak eta/edo aitortzailearen mendean dauden ondorengoek eta tutoretzapeko pertsonak interesak badituzte sozietate horretan.

2. Horretarako, Foru Dekretu honetako III. eranskinean aurreikusitako ondasun eta interesen aitortpen ereduak beteko da.

3. Ondare aitortpenarekin batera, derrigortasuna dutenek errenta eta ondarea zergapetzen duten zerga aitortpenen kopia aurkeztu beharko dute, legez egin behar izan dituztenak ekitaldi fiskal hauetan:

– Zerbitzua hasitako ekitaldia.

– Zerbitzua hasi aurretiko ekitaldia.

4. Urtean behin, derrigortasuna dutenek erregistroan ondoren egindako zerga aitortpenen kopia aurkeztuko dute.

5. Era berean, derrigortasuna dutenek ondasun eta interesen aitortpena aurkeztu beharko dute aitortutakoan aldaketarik gertatuz gero.

13. artikulua. Aurkezteko epea

1. Ondasun eta interesen aitortpena hilabeteko epean aurkeztuko da foru kargu publikoen ondasun eta jardueren erregistroan, eta hilabetea honela kalkulatu da:

a) Zerbitzua hasi zuen egunetik aurrera.

b) Kargua utzi zuen egunetik aurrera.

c) Hala badagokio, aurretik adierazitako datuak aldatu zirenetik aurrera.

2. Ondasun eta interesak aitortzeko betebeharra foru kargu publikoa utzi eta hurrengo bi urteetan luzatuko da.

3. Ondorengo zerga aitortpenen kopiak hilabeteko epean aurkeztu beharko dira horiek dagokion zerga administrazioan aurkeztu ondoren kontatzen hasita.

14. artikulua. Aitortpen boluntarioa

1. Aitortpena aurkeztu behar duenarekin bizi den pertsonak edo ezkontideak eta lehen graduko odol ahaideek, nahi izanez gero, ondasun eta interesen aitortpena egin eta erregistro egokian aurkeztu ahal izango dute. Horretarako, III. eranskineko ondasun eta interesen aitortpen ereduak beteko dute.

2. Era berean, modu boluntarioan aurkeztu ahal izango dituzte errenta eta ondarea zergapetzen duten zergen zerga aitortpenak, eta legez egin behar izan dituztenak foru kargu publikoen ezkontideek edo izatezko bikoteek.

15. artikulua. Publizitatea

1. Aldundiko idazkaritza nagusiko titularrak ALHAOn eta Arabako Foru Aldundiko webgunean argitaratzeko aginduko du argitaratu beharreko IV. eranskinean jasotako datuen edukia.

2. Edonola ere, egindako aitopenei buruz egiten den hedapenean honako informazioa jaso beharko da:

- Ondasun higieziari dagokienez: izaera, ezaugarriak eta katastro balioa.
- Banku gordailuei dagokienez: aitopenearen egunean dagoen saldoa.
- Banatuta ez dauden ondasun eta eskubideei dagokienez: aitortzailearen partaidetzaren ehunekoak.

3. Nolanahi ere, ez dira emango ondasun higiezinak zehazki non dauden adierazten duten datuak, eta titularren pribatutasuna eta segurtasuna bermatuko dira.

IV. KAPITULUA

Erregistro bietarako xedapen komunak

16. artikulua. Jardueren erregistroaren eta ondasun eta interesen erregistroaren zereginak

Erregistro biek uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauan, foru kargu publikoen jardura arautzen duenean, agindutako zereginak beteko dituzte, eta zehazki hauek:

a) Foru kargu publikoek aurkeztutako jardueren eta ondasun eta interesen aitopeneak gordetzea eta modu boluntarioan, Foru Dekretu honen 14. artikularekin bat eginez, aurkeztu diren aitopeneak gordetzea.

b) Izen-emateak egitea. Erregistro bakoitzak liburu bat izango du, eta liburu horietan jasoko dira erregistro zenbakia eta egiaztapen zenbakia, sarrera eguna eta aitortzailearen izen-abizenak, bere kargua eta aurkeztutako aitopenearen izaera.

c) Aitortzaileari erreziiboak ematea.

d) Aurkeztutako aitopeneak gordetzea eta zaintzea, baita gainerako dokumentazioa ere.

e) Ofizioz ezeztatzea dagozkion egiaztapenak, datuen sarbidea eta itzulketa blokeatzea eta hala badagokio dokumentazioa suntsitzea.

17. artikulua. Errekerimendua

1. Aitopeneak aurkezteko epeari buruz 7. eta 13. artikuluetan xedatutakoa albo batera utzi gabe, Foru Aldundiko Idazkaritza Nagusiak jakiten duenean jardueren eta ondasunen eta interesen aitopena aurkezteko derrigortasuna dutenek kargua hartu edo utzi dutela, haiengana joko du betebeharrak hori betetzeko eskatuz.

2. Betetzen ez baldin badute foru kargu publikoaren izendapena proposatutako sailaren titularrarekin harremanetan jarriko dira, dagokion zehapen araubidea ezartzeko. Gobernu Kontseiluko kide bat baldin bada, Gobernu Kontseiluari horren berri emango zaio.

18. artikulua. Aitopeneak aurkezteko lekua

1. Jardueren eta ondasun eta interesen aitopeneak derrigorrez aurkeztu behar dituzten foru kargu publikoek aitopeneak aurrez aurre aurkeztuko dituzte Foru Aldundiaren Idazkaritza Nagusian edo zerbitzu horretara bidaliko dituzte.

Bidalketa eginez gero, bidalketa gutun-azal banatuetan egin beharko da, gutun-azalak itxita egon beharko dira, eta ondasun eta interesen kasuan horien edukiaren konfidentzialtasuna bermatu egin beharko da.

2. Aldundiaren Idazkaritza Nagusiko langileek aitopene bakoitza noiz aurkeztu den ezarriko dute gutun-azaletan.

19. artikulua. Dagokion erregistroan izena ematea

1. Betetako aitopene guztiak dagokion erregistroan inskribatuko dira.

2. Izen-emateak egin ondoren aldundiaren Idazkaritza Nagusiko titularrak aitortzaileari hartu agiri gisa bidaliko dio aitopeneak aurkeztutako unean praktikatutako erregistro egiaztapenearen kopia.

20. artikulua. Egiaztapenak ezeztatzea eta dokumentazioa itzultzea

1. Foru Aldundiaren Idazkaritza Nagusian aitortpena egiteko betebeharra zehazten duen kargua edo funtzioa utzi eta lau urte igaro ondoren, ofizioz honako jarduketak egingo dira:

- Dagozkion egiaztapenak ezeztatzea.
- ALHAOn eta erakundeko webgunean datuak jasotzeko gaitasuna blokeatzea.
- Interesatuari erregistroetan jarritako dokumentazioa itzultzea.

2. Erregistroetan jarritako dokumentazioa suntsitzea erabakiko da interesatuak dokumentazioaren ardura hartzen ez baldin badu bi hilabeteko epean edo hori berariaz adierazten badu.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Foru Dekretu hau indarrean jarri aurretik izendatutako foru kargu publikodunek nahitaez aurkeztu beharreko aitortpenak.

Foru Dekretu hau indarrean jarri aurretik jardueri buruzko aitortpena eta ondasunei eta interesei buruzko aitortpena aurkeztu duten foru kargu publikodunek ez dute aurkeztu beharko beste aitortpenik.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egin dira Foru Dekretu honetan xedatutakoaren aurka doazen eta maila berdina edo baxuagoa duten xedapenak, zehazki hau: Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 10eko 60/2008 Foru Dekretua, Arabako Foru administrazioaren diputatu nagusiaren, foru diputatuen eta goi-mailako karguen jardueren aitortpena eta ondasun eta interesen aitortpena aurkeztu eta dagozkien ereduak onartzeko prozesua onartzen duena.

AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea

Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria

NEKANE ZEBERIO GANZARAIN

I. ERANSKINA

JARDUERAK AITORTZEKO EREDUA

1. Aitortzailearen datuak

Izen-abizenak	
Sexua	
NAN zenbakia	
Kargua	
Zerbitzua hasi zuen eguna	
Helbidea	
Telefono zenbakia	
Posta elektrikoko helbidea	

2. Aitorpen mota

Aukeratu dagokion aukera edo aukerak:

- Hasi aurretiko 2 urteak (3. atala).
- Hasierakoa (4. atala).
- Inguruabarrak aldatzea (5. atala).
- Kargua utzi eta hurrengo 2 urteak (6. atala).

Aukeratu eta bete 3., 4., 5. eta 6. atalak, hau da, bete behar dituzunak egin nahi duzun aitorpen motaren arabera. Beteko ez dituzun ataletan markatu "epigrafe honetan aitortzeko ezer ez dago" eremua.

3. Kargua izan aurretiko 2 urteetan egindako jarduerak (10/2018 F Aren 31.1.b) artikulua)

Zerbitzua hasi zuen eguna inguruabarrean bakarrik bete.

Jarduera mota (1)	Jardueraren deskribapena (2)	Erakundea / enpresa	Xede soziala (3)	Ordainsaria		Hasierako eguna	Bukaerako eguna
				BAI	EZ		

- (1) *Jarduera mota: Jarduera publikoak (APU), Jarduera pribatuak (APR), Hautatutako karguak (CEL), Unibertsitate hezkuntza eta ikerketa (DUN), Langile publikoen prestakuntza (FEP).*
- (2) *Jarduera pribatua bada (APR), adierazi eskumenak eta egindako zereginak. Bestela, adierazi izandako lanpostua.*
- (3) *Xede soziala bakarrik jarduera pribatua bada adierazi beharko da.*

- Ez dut ezer aitortzeko 3. epigrafe honetan.

4. Kargu publiko gisa zerbitzua ematen hastean egiten ari zen jarduera (10/2018 FAre 31.1.a artikulua)

Zerbitzua **hasi zuen eguna inguruabarrean bakarrik bete.**

4.1. Jarduerak

Jarduera mota (1)	Jardueraren deskribapena (2)	Erakundea / enpresa	Xede soziala (3)	Ordainsaria		Hasierako eguna	Bukaerako eguna
				BAI	EZ		

- (1) *Jarduera mota: Jarduera publikoak (APU), Jarduera pribatuak (APR), Hautatutako karguak (CEL), Unibertsitate hezkuntza eta ikerketa (DUN), Langile publikoen prestakuntza (FEP).*
- (2) *Jarduera pribatua bada (APR), adierazi eskumenak eta egindako zereginak. Bestela, adierazi izandako lanpostua.*
- (3) *Xede soziala bakarrik jarduera pribatua bada adierazi beharko da.*

- Bateragarritasun baimena eskatzen dut** aitortutako jardueri dagokienez, uztailaren 11ko 10/2018 FAre, foru kargu publikoaren jarduera arautzen duenaren, 28. artikuluan ezarritako prozedurarekin bat eginez. Horretarako, II. eranskinean zehaztutako dokumentazioa aurkeztu dut.

4.2. Ordainsariak

Ez dira ordainsariak izango zerbitzuan sortu ahal izan diren gastuengatik kalte-ordainen kontzeptuan jasotako zenbatekoak, uztailaren 11ko 10/2018 FAre, foru kargu publikoaren jarduera arautzen duenaren, 23.3. artikulurekin bat eginez.

- a) Adierazi ea ordainsari bat baino gehiago jasotzen dituzun administrazio publikoen edo horiekin lotutako edo horien menpekoak diren aurrekontuen kargura.
- Ez
- Bai. Adierazi zein:
- b) Adierazi ea zuzenean edo zeharka jarduera pribatu batetik datorren ordainsaririk jasotzen duzun.
- Ez.
- Bai. Adierazi zein:
- c) Eskubide pasiboak eta Gizarte Segurantzakoak jasotzea.
- Ez.
- Bai. Adierazi zein:
- Ez dut ezer aitortzeko 4. epigrafe honetan.

5. Inguruabarrak aldatzea**5.1. Jarduerak aldatzea****Oharra:**

- **Ez adierazi kargu publikoa** egikaritzearen **ondoriozko jarduerak** (25.1.a. artikulua).

Jarduera mota (1)	Jardueraren deskribapena (2)	Erakundea / enpresa	Xede soziala (3)	Ordainsaria		Hasierako eguna	Bukaerako eguna
				BAI	EZ		

(1) *Jarduera mota: Jarduera publikoak (APU), Jarduera pribatuak (APR), Hautatutako karguak (CEL), Unibertsitate hezkuntza eta ikerketa (DUN), Langile publikoen prestakuntza (FEP).*

(2) *Jarduera pribatua bada (APR), adierazi eskumenak eta egindako zereginak. Bestela, adierazi izandako lanpostua.*

(3) *Xede soziala bakarrik jarduera pribatua bada adierazi beharko da.*

- Bateragarritasun baimena eskatzen dut** aitortutako jarduerari dagokienez, uztailaren 11ko 10/2018 FAre, foru kargu publikoaren jarduera arautzen duenaren, 28. artikuluan ezarritako prozedurarekin bat eginez. Horretarako, II. eranskinean zehaztutako dokumentazioa aurkeztu dut.

5.2. Jasotako ordainsariak aldatzea

- a) Adierazi ea ordainsari bat baino gehiago jasotzen dituzun administrazio publikoen edo horiekin lotutako edo horien menpekoak diren aurrekontuen kargura.
- Ez.
- Bai. Adierazi zein:
- b) Adierazi ea zuzenean edo zeharka jarduera pribatu batetik datorren ordainsaririk jasotzen duzun.
- Ez.
- Bai. Adierazi zein:
- c) Eskubide pasiboak eta Gizarte Segurantzakoak jasotzea.
- Ez.
- Bai. Adierazi zein:
- Ez dut ezer aitortzeko 5. epigrafe honetan.

6. Kargua uztearen ondorengo 2 urteetan egingo diren jarduera pribatuak (10/2018 FAren 31.1.c) artikulua).

Jarduera mota (1)	Jardueraren deskribapena (2)	Erakundea / enpresa	Xede soziala	Hasierako eguna
APR				

- (1) **Bakarrik jarduera pribatuak** adierazi.
 (2) **Adierazi eskumenak eta egindako zereginak.**

Ez dut ezer aitortzeko 6. epigrafe honetan.

Eta uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren, foru kargu publikoen jarduera arautzen duenaren, 31. artikuluan xedatutakoa betez, aitorten hau aurkezten dut eta aitortutako datuen egiautasunarekiko eta egunerokotasunarekiko ardura nire gain hartzen dut.

Tokia eta data.

Aitortzailearen sinadura

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (UE) 2016/679 araubidean (DBEO) eta abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoan, datu pertsonalak babestekoan eta eskubide digitalak bermatzekoan, zehaztutakoak betetzeko, jakinarazten dizugu zuk emandako datuak "Jardueren aitortenak" tratamendu jardueraren barne egongo direla, titularrak Arabako Foru Aldundia izango dela eta tratamenduak foru kargu publikoen jardueren aitortenak erregistratzeko egiten direla.

Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitzaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan. Aukeran izango duzu datuetan sartu, haien zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, DBEOk aitortzen dituenak, eta, horretarako, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo beharko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz -Araba).

Informazio gehiago: <http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>

II. ERANSKINA

BATERAGARRITASUN BAIMENA ESKATZEKO AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA:

Uztailaren 11ko 10/2018 FAre, foru kargu publikoaren jarduera arautzen duenaren, 28. artikuluekin bat eginez, beharrezkoa izango da **bateragarritasun edo bateraezintasun berariazko aitortpena** egitea 24. artikuluen c), d) eta e) ataletako inguruabarretan eta 25., 26. eta 27. artikuluetako inguruabarretan.

Beharrezkoa da jarduera aitortenarekin batera aukeratutako dokumentazioaren eremua **markatzea** (I. eranskina).

1. Jarduera pribatuak.

1.1 Noizean behin kongresuetan, jardunaldietan, seminarioetan, ikastaro eta konferentzietan eta komunikazio sozialeko bitartekoek hizketaldi eta programetan parte hartzea.

- Lan harremanik edo zerbitzu kontraturik ez dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa.

1.2 Literatura, arte, zientzia edo teknika ekoiztea eta sortzea eta horiek merkaturatzea eta argitaratzea.

- Lan harremanik edo zerbitzu kontraturik ez dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa.

1.3 Fundazioetan, elkarteetan edo irabazi asmorik gabeko erakundeetan parte hartzea eta balio sozialak sustatzen dituzten eta interes sozialekoak edo kulturekoak diren jarduerak.

- Ordainsaririk jasotzen ez duela egiaztatzen duen agiria.

2. Jarduera publikoak.

- Ordainsaririk jasotzen ez duela egiaztatzen duen agiria.

3. Herri ordezkapeneko kargu publikoak.

- Erakundearen ziurtagiria, ordezkaritza agintea egikaritzen duena kargua, dedikazioa eta ordainsariak edo dietak jasotzen dituen adieraziz.

4.- Unibertsitate hezkuntza eta ikerketa eta langile publikoen prestakuntza.

4.1.- Unibertsitate ikerkuntza eta hezkuntza.

- Urteko eskola orduak egiaztatzeko agiria.

4.2.- Zentro ofizialek antolatutako seminarioetan, jardunaldietan edo konferentzietan parte hartzea, administrazio publikoetako langileak prestatzeko direnetan hain zuzen ere.

- Urteko eskola orduak egiaztatzeko agiria.
- Jarduera iraunkorra ez dela egiaztatzen duen agiria, eta jarduerak karguarekin, espezialitate profesionalarekin edo administrazio lanpostuarekin lotura duela egiaztatzen duen agiria.

III. ERANSKINA

ONDASUN ETA INTERESEN AITORPEN EREDUA

1. KARGU PUBLIKOAREN DATU PERTSONALAK

Izen-abizenak	
Sexua	
NAN zenbakia	
Kargua	
Zerbitzua hasi zuen eguna	
Helbidea	
Telefono zenbakia	
Posta elektrikoko helbidea	

2. FAMILIAKO KIDE AITORTZAILEAREN DATUAK

*Eremu hau **bakarrik modu boluntarioan** aitorpen hau aurkeztu nahi dutenek bete beharko dute, betiere aitorpena aurkeztera derrigortuta daudenen bizikideak, ezkontideak edo odolkidetasuneko lehenengo mailakoak badira (10/2018 FAre 32.4. artikulua).*

Izen-abizenak	
Sexua	
NAN zenbakia	
Kargua duenarekin duen harremana	
Helbidea	
Telefono zenbakia	
Posta elektronikoko helbidea	

3. AITORPEN MOTA

Aukeratu dagokion aukera:

- I Hasierakoa
- I Aitorpena aldatzea
- I Bukaerakoa / kargua uztea
- I Kargua utzi eta hurrengo 2 urteetan zehar
- I Bizikidearen, ezkontidearen edo familiako kidearen aitorpen boluntarioa

4. ONDAREAREN MUGAK (10/2018 FAre 29. artikulua).

Aukeratu dagokion aukera edo aukerak:

I Arabako lurralde historikoko sektore publikoarekin kontratuak egiten dituzten sozietateetan % 10 baino gehiagoko partaidetzak izatea, edo enpresa horien azpikontratatistak izatea edo foru sektore publiko horretako erakundeen diru-laguntzak jasotzea (8. atala).

I Atxikitako kapital soziala 600.000 euro baino gehiagokoa duten sozietateetan parte-hartzeak izatea, nahiz eta parte-hartzea % 10ekoa ez izan, betiere enpresaren kapitalean duen kokapenak sozietatearen jarduketara modu esanguratsuan baldintzatzea ahalbidetzen badio (8. atala).

Oharrak:

- Foru kargu publikoak berak edo tartekatutako pertsonak dituen partaidetzei eragiten dien mugak.
- Izendapena egiten denetik aurrera edo oinordetza ondorengotza kasuan ondorengotza hori edo kargua egikaritzean beste doako tituluren bat eskuratzen denetik aurrera hiru hilabeteko epea izango du ezarritako mugak gainditzen dituzten partaidetzak uzteko. Horren berri eman beharko dio aldundiaren Idazkaritza Nagusiko Zerbitzuari.

- Ez dut ezer aitortzeko 4. epigrafe honetan.

5. HIRIKO ETA LANDAKO ONDASUN HIGIEZINAK

Izaera		Mota (1)	Udalerrria eta lurralde historikoa edo probintzia	Eskuraketaren eguna	Eskuraketa titulua (2)	Katastro balioa (3)	Partaidetza ehunekoa
Hirikoa	Landakoa						
Hirikoa	Landakoa						

- (1) Mota: Adierazi zer den, etxea, pisua, apartamentua, garajea, garajeko plaza, merkataritza lokala, trastelekua, lursaila, eta abar.
 (2) Eskuratzeko titulua: salerosketa, oinordetza, eta abar.
 (3) Katastro balioa: Hiriko/landako ondasunei atxiki beharreko gutxieneko balioa, katastroan kontsignatutakoak egun horretan.

- Ez dut ezer aitortzeko 5. epigrafe honetan.

6. ONDASUN HIGIGARRIAK

Deskribapena eta modeloa (1)	Eskuraketaren eguna	Eskuraketa titulua	Hondar balioa (2)	Partaidetza ehunekoa

- (1) Deskribapena: Adierazi automobila, motozikleta, ontzia, aireontzia, eta abar den.
 Modeloa: Adierazi ondasun higigarriaren modeloa.
 (2) Hondar balioa: Autoen eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak adierazi, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraibideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako.

- Ez dut ezer aitortzeko 6. epigrafe honetan.

7. BESTELAKO ONDARE HIGIGARRIAK

Deskribapena (1)	Finantza erakundea	Balioa	Partaidetzaren ehunekoa	Eskuratzeko edo harpidetza eguna

- (1) Deskribapena: Adierazi kontu korrantea, eperako gordailua, akzioak eta mota guztietako partaidetzak inbertsio kolektiboko sozietate eta erakundeetan, bizi aseguruak, pentsio planak, aldi baterako errentak eta errenta biziartekoak, zor publikoa, betebeharrak, bonoak, jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak, eta antzekoak.

Ez dut ezer aitortzeko 7. epigrafe honetan.

8. SOZietateetako Partaidetzak

Oharra:

- Adierazi aitortzailearen, ezkontidearen edo afektibitate harreman antzekoaren bitartez bizikidea denaren, menpeko oinordekoen eta tutoretzapekoen partaidetza guztiak, uztailearen 11ko 10/2018 FAren, foru kargu publikoaren jarduera arautzen duenaren, 32.1.c) artikularekin bat eginez.

Sozietatearen izena	Xede soziala	Zenbakia eta balioa (1)	Eskuraketaren eguna	Kapitalean duen partaidetza ehunekoa

- (1) Adierazi izenpetutako kapital soziala.

Ez dut ezer aitortzeko 8. epigrafe honetan.

9. ONDARE BETEBEHARRAK, ZORRAK, MAILEGUAK, KREDITUAK ETA ANTZEKOAK.

Deskribapena	Balioa	Eskuraketaren eguna	Partaidetza ehunekoa

Ez dut ezer aitortzeko 9. epigrafe honetan.

10. INTERESA DUEN MOTA GUZTietako Sozietateak

Oharra:

- Adierazi sozietate partaidetzarik izan gabe, aitortzaileak, ezkontideak edo afektibitate harremanean bizikidetzan jarduten duenak, menpeko oinordekoek edo aitortzaileen tutoretzapekoek interesak dituzten sozietateak.

Izena	Xede soziala

Ez dut ezer aitortzeko 10. epigrafe honetan.

11. AITORPENAREKIN BATERA AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA

Uztailaren 11ko 10/2018 FAre, foru kargu publikoen jarduera arautzen duenaren, 32.2. artikulua xedatutakoa betez, aitorten hau aurkezten dut eta aitortutako datuen egitasunarekiko eta egunerokotasunarekiko ardura nire gain hartzen dut:

- **Errenta eta ondareko zerga aitorten kopia sinplea.**
 - Zerbitzua hasi zen ekitaldi fiskala.
 - Zerbitzua hasi aurretiko aurreko ekitaldi fiskala.
 - Urteko aurkezpena.
 - Ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen aitortpena (boluntarioa).

Eta uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren, foru kargu publikoen jarduera arautzen duenaren, 32. artikuluan xedatutakoa betez, aitorten hau aurkezten dut eta aitortutako datuen egitasunarekiko eta egunerokotasunarekiko ardura nire gain hartzen dut.

Tokia eta data.

Aitortzailearen sinadura.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (UE) 2016/679 araubidean (DBEO) eta abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoan, datu pertsonalak babestekoan eta eskubide digitalak bermatzekoan, zehaztutakoak betetzeko, jakinarazten dizugu zuk emandako datuak "Ondasunen eta interesen aitortenak" tratamendu jardueraren barne egongo direla, titularra Arabako Foru Aldundia izango dela eta tratamenduak foru kargu publikoen eta haien ahaideen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen ondasun eta interesen aitortenak eta zerga aitortenak erregistratzeko egiten direla.

Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitzaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan. Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiak zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, DBEOk aitortzen dituenak, eta, horretarako, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo beharko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz -Araba).

Informazio gehiago: <http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>

IV. ERANSKINA

ARGITARATU BEHARREKO ONDASUN ETA INTERESEN AITORPEN EREDUA

1. KARGU PUBLIKOAREN DATU PERTSONALAK

Izen-abizenak	
Sexua	
Kargua	

2. FAMILIAKO KIDE AITORTZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak	
Sexua	
Karguarekin duen harremana	

3. AITORPEN MOTA

Aukeratu dagokion aukera:

- Hasierakoa
- Aitorpena aldatzea
- Bukaerakoa / kargua uztea
- Kargua utzi eta hurrengo 2 urteetan zehar
- Bizikidearen/ezkontidearen edo odolkidetasuneko lehenengo maila duen familiako kidearen aitorpen boluntarioa

4. HIRIKO ETA LANDAKO ONDASUN HIGIEZINAK

Izaera		Ezaugarriak	Katastro balioa	Partaidetza ehunekoa
Hirikoa	Landakoa			
Hirikoa	Landakoa			

5. ONDASUN HIGIGARRIAK (ibilgailuak, motozikletak, ontziak, aireontziak, eta abar.)

Deskribapena eta modeloa	Hondar balioa	Partaidetza ehunekoa

6. BESTELAKO ONDARE HIGIGARRIA (kontu korranteak, pentsio planak, bizitza aseguruak, eta abar).

Deskribapena	Finantza erakundea	Balioa	Partaidetzaren ehunekoa

7. SOZIETATE PARTAIDETZAK (aitortzailearen partaidetzak)

Sozietatea	Xede soziala	Zenbakia eta balioa	Kapitalean duen partaidetza ehunekoa

8. ONDARE BETEBEHARRAK, ZORRAK, MAILEGUAK, KREDITUAK ETA ANTZEKOAK

Deskribapena	Balioa	Partaidetza ehunekoa

9. INTERESA DUEN MOTA GUZTIETAKO SOZIETATEAK

Izena